



## ARABAKO MAHASTIAK BERREGITURATU ETA BIRMOLDATZEKO LAGUNTZAK ORDAINTZEKO ESKABIDEA AURKEZTEKO GIDA

Mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko helburuz, aurreko deialdietan onartutako laguntzen aurrerakina edo azken ordainketa jaso ahal izateko, laguntzaren onuradunak edo haren ordezkariak ordaintzeko eskabidea aurkeztu beharko du hasierako eskabidea egindakoan adierazitako finantza-ekitaldiko ordaintzeko eskabideak egiteko epearen barruan.

Ordaintzeko eskabideak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko "NIRE ARLO PERTSONALA" atalaren barruan, "NIRE ESPEDIENTEAK" atala erabiliz aurkeztu beharko dira.

**Aurrerakina ordaintzeko eskabidea edo laguntzaren azken ordainketa jasotzeko eskabidea era telematikoan aurkeztu aurretik, deskargen eremuan norberak betetzeko moduko inprimakiak bete eta sinatu beharko dira.**

Gainera, laguntzaren azken ordainketa eskatzeko, ekintzak gauzatu direla egiaztatzen duten agiri guztiak bildu eta digitalizatu beharko dira (fakturak, ordainagiriak, nominak, analisiak...).

Eskaera betetzean zalantzarik edo zailtasunik baduzu eta arreta behar baduzu, hitzordua eska dezakezu esteka honetan: Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua - hitzordua (araba.eus).

### **GIDALIBURUAREN EDUKIA:**

1.-	Ordaintzeko Eskabideak Aurkezteko Epea .....	2
2.-	Aurrerakina Ordaintzeko Eskabidea edo Laguntzaren Azken Ordainketa Egiteko Eskabidea Era Telematikoan aurkeztea .....	3
3.-	Aurrerakina ordaintzeko eskabidea .....	10
4.-	Amaierako ordainketa egiteko edo aurrerakinaren saldoa ordaintzeko eskabidea .....	12
5.-	Ordaintzeko eskabidea betetzeko adibidea .....	14



## 1.- ORDAINTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Ordainketa aurreratuaren eta laguntzaren azken ordainketaren eskabideak NAHITAEZ aurkeztu behar dira laguntza-eskabidean adierazitako finantza-ekitaldiko ordainketa-eskaeren epearen barruan ("Eragiketaren banakako fitxa" delakoaren 1.2 atala).

1.2 DATOS DE LA OPERACIÓN						
Nombre de la operación:						
Ejercicio financiero de solicitud de pago:	= 2025			= 2026		
Solicitud de anticipo <sup>(1)</sup> :	= Sí	Porcentaje de pago anticipado sobre importe final (máx. 80%):	%	Ejercicio Financiero pago anticipo:	= 2025	= 2026

Finantza-ekitaldi bakoitzeko ordaintzeko eskabideen epea aurreko urteko urriaren 16an hasi eta uneko ekitaldiko ekainaren 30ean amaituko da.<sup>1</sup>

**1. adibidea:** 2024ko deialdian onartutako urteko eragiketa.

- Ordainketa eskatzeko finantza-ekitaldia: 2025
- Ordaintzeko eskabideak egiteko epea: 2024ko urriaren 16tik 2025eko ekainaren 30era.

**2. adibidea:** 2024ko deialdian onartutako bi urteko eragiketa.

- Ordainketa eskatzeko finantza-ekitaldia: 2026
- Ordaintzeko eskabideak egiteko epea: 2025eko urriaren 16tik 2026ko ekainaren 30era.

Ordaintzeko eskabidea hasieran adierazi zen finantza ekitaldiko epetik kanpo eskatzen bada, baina hasierako eskabiadren ondoko bigarren ekitaldia amaitu baino lehen egiten bada, laguntza % 20 murriztuko da.

Ordainketa hasierako eskabidearen ondoko bigarren ekitaldia amaitu ondotik eskatzen bada, laguntza kobratzeko eskubidea galduko da. Beraz, bi urteko eragiketek ezin dute ordaintzeko eskabidea atzeratu onartutako edo aldatutako eskabidean adierazitako finantza ekitalditik harago.

Ezinbesteko kasuetan edo salbuespenezko egoeretan, ez dira murrizketa horiek aplikatuko.

<sup>1</sup> 2023ko deialdian onartutako eragiketak ordaintzeko eskaerak egiteko epea hasierako eskabidean adierazitako ordaintzeko finantza-ekitaldiko uztailaren 31n amaituko da.




## 2.- AURRERAKINA ORDAINTZEKO ESKABIDEA EDO LAGUNTZAREN AZKEN ORDAINKETA EGITEKO ESKABIDEA ERA TELEMATIKOAN AURKEZTEA


Ordaintzeko eskabideak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko "NIRE ARLO PERTSONALA" atalaren barruko "NIRE ESPEDIENTEAK" atalaren bidez aurkeztu behar dira, urrats hauei jarraituz:

### 1. Sartu Aldundiaren egoitza elektronikoa.

Sartu [www.araba.eus](https://www.araba.eus) webgunean eta sakatu "EGOITZA ELEKTRONIKOA".



### 2. Sar zaitetz "NIRE ARLO PERTSONALA" atalean.





### 3. Onuradunaren identifikazio elektronikoa.

(Edo ordezkariarena, baldin eta hasierako eskabidea ordezkariak aurkeztu badu eta bide ez-telematikoak erabiliz baimendu bada).

The screenshot shows the 'Accede a la Sede' page. At the top left is the logo 'egoitza.araba.eus'. At the top right are navigation links: 'Inicio', 'Contacto', 'FAQ's', and 'EUSKARA'. Below the navigation is a date and time: '20/11/2023 12:24:33'. The main heading is 'Accede a la Sede'. Below it is a paragraph: 'Para acceder al contenido seleccionado debe identificarse utilizando alguno de los sistemas admitidos, dichos sistemas pueden variar en función del nivel de seguridad requerido para cada procedimiento, trámite o servicio.' There are two buttons: 'Identificación' (highlighted with a red box and an arrow pointing to it from the text 'Pinche aquí') and 'Acceso con claves de Diputación'. Below the buttons is a pink banner: 'Dispones ahora de la posibilidad de realizar tramitaciones online utilizando la firma BAK para ciertos trámites.' At the bottom, there is a section '¿Necesitas información acerca de cómo autenticarte en la Sede?' with the text 'Consulta los siguientes enlaces:' and a list of links: 'Cómo acceso a la Sede Electrónica' and 'Descarga de Certificados Izenpe'.

### 4. Sar zaitetz "Nire espedienteak" atalean.

The screenshot shows the 'SERVICIOS' page. At the top left is the logo 'egoitza.araba.eus'. At the top right are navigation links: 'Inicio', 'Sugerencias', 'Contacto', 'FAQ's', and 'EUSKARA'. Below the navigation is a date and time: '20/11/2023 12:35:2'. The main heading is 'SERVICIOS'. Below it is a dark grey box with the text 'No hay avisos sin leer.' and a 'Cerrar Sesión' button. Below that is the 'ÁREA PERSONAL' section with a list of links: 'Mis datos', 'Mis expedientes' (highlighted with a red box and an arrow pointing to it from the text 'Pinche aquí'), 'Mis avisos', 'Mis actuaciones', 'Mis autorizados', 'Mis autorizaciones', 'Mis documentos', and 'Mis notificaciones'. Below the 'ÁREA PERSONAL' is the 'MIS FAVORITOS' section with a star icon and the text 'Mis Notificaciones'. The main content area has a large banner with the text '¿Qué trámite necesitas realizar?' and 'Busca ayudas, subvenciones, concursos, autorizaciones... Fácil, seguro y sin desplazarte.' Below the banner is a 'Buscar' button. Below the banner are two columns of 'SERVICIOS DESTACADOS' and 'SERVICIOS MÁS UTILIZADOS'. The 'SERVICIOS DESTACADOS' column lists: 'Renta y Patrimonio - Individuales', 'Factura electrónica', 'Alta de terceros Diputación Foral de Álava', 'Botha', and 'Suministro Inmediato de Información IVA'. The 'SERVICIOS MÁS UTILIZADOS' column lists: 'Presentación declaraciones - Individuales', 'Representación Voluntaria', 'Servicio de Certificados', 'Renta y Patrimonio - Individuales', and 'Envíos Fiscales'. At the bottom of each column is a 'Ver todos>>' link.



## 5. Hautatu mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzen espedientea.



Espedientera sartzeko, klikatu ikono honetan:

Deialdi batean baino gehiagotan laguntzak eskatu badituzu, ziurtatu aukeratu ordaintzeko eskatuko duzun eragiketa edo eragiketak daudeneko deialdiko espedientea.

egoitza.araba.eus Inicio | Sugerencias | Contacto | FAQ's | EUSKARA

20/11/2023 12:38:45 BOTHA

SERVICIOS

Mis Expedientes

Introduzca los criterios de búsqueda:

Nº Expediente

Fecha Apertura  Fecha Cierre

Estados

Buscar Búsqueda Avanzada

No hay avisos sin leer. Cerrar Sesión x

ÁREA PERSONAL

- Mis datos
- Mis expedientes
- Mis avisos
- Mis actuaciones
- Mis autorizados
- Mis autorizaciones
- Mis documentos
- Mis notificaciones

Se han encontrado 1 elementos.

Nº Expediente	Título	Fecha Apertura	Estado	Fecha Cierre	Acc
AREREV-2023/00002	Ayudas a la reestructuración y reconversión del viñedo	05/04/2023	En Subsanación		

Se han encontrado 1 elementos.

Pinche aquí

## 6. Erantsi agiriak.


Espedientean sartu ondoren, zure egoera eta ordura arte aurkeztutako dokumentazioa kontsultatu ahal izango dituzu.

Ordaintzeko eskabidearekin batera dokumentu bat baino gehiago aurkeztu behar izanez gero, hala nola fakturak, ordainagiriak, nominak eta abar, fitxategiak kargatzeko prozedura errazteko xedez, gomendagarria da aldez aurretik dokumentazio guztia fitxategi bakar batean biltzea.




## Dokumentazioa .zip fitxategi bakarrean konprimitzeko:

1. Gorde fitxategi guztiak karpeta berean.
2. Sakatu karpetaren gainean saguaren eskuineko botoiarekin.
3. Hautatu "Bidali hona" eta, ondoren, "Karpeta konprimitua (zip)".



4. Automatikoki, karpeta berria sortuko da izen berarekin eta .zip luzapena duela.

Ordaintzeko eskabideari buruzko dokumentazioa eransteko, sakatu "Erantsi" botoia.





Pantaila horretan, bete eremu hauek:

- 1. Fitxategi-mota:** Aukeratu aurkeztu nahi duzun fitxategiaren formatua.
- 2. Dokumentu-mota:** Hautatu "Beste batzuk".
- 3. Fitxategia:** Sakatu "Aukeratu fitxategia" botoia, nabigatu aurkeztu nahi duzun fitxategia gordeta daukazun karpetaraino eta aukeratu. Kontuan izan artxiboa ezin dela 10 MBtik gorakoa izan.
- 4. Deskribapena:** Idatzi igo behar duzun dokumentazioaren deskribapen laburra. (Adibidez: "Ordaintzeko eskabidea", "ordainketa aurreratuaren eskabidea", "Fakturak", "Nominak"...).

Mis Expedientes

Adjuntar archivo

Tipo de Fichero

Tipo de documento

Fichero  DOCUMENTACIÓN PAGO.zip

Descripción

Anexar

NOTA: El documento no puede ocupar más de 10 MB.

Volver

Sakatu "Erantsi" botoia, eta ikusiko duzu hautatutako fitxategia azpian ageri den "Erantsitakoak" izeneko zerrendan gehitu dela.

Dokumentu gehiago erantsi nahi baduzu, sakatu berriro "Fitxategia aukeratu" botoia eta berriz egin aurreko prozedura; bestela, sakatu "Amaitu".

Mis Expedientes

Adjuntar archivo

Tipo de Fichero

Tipo de documento

Fichero  No se ha seleccionado ningún archivo

Descripción

Anexar

NOTA: El documento no puede ocupar más de 10 MB.

Adjuntados

DOCUMENTACION PAGO.zip

Volver Finalizar



Hurrengo pantailan, igo beharreko fitxategien zerrenda ikusiko duzu. Zuzena bada, sakatu "Sinatu" botoia, eta IZENPEren leiho bat irekiko da, dokumentazioaren aurkezpena sinatzeko.

Resión x

Núm. Expediente AREREV-2023/00002

Título de expediente Ayudas a la reestructuración y reconversión del viñedo

Fecha de apertura 05/04/2023

Estado En tramitación

Adjuntos  
[Solicitud de pago]DOCUMENTACION PAGO.zip

Servicio	Fecha	Nombre	Valor
Enviado	05/04/2023		
En Tramitación	05/04/2023		
En subsanación	21/04/2023		
En subsanación	12/05/2023		
En subsanación	12/05/2023		
En subsanación	12/05/2023		
En subsanación	12/05/2023		
En subsanación	30/08/2023		
En subsanación	30/08/2023		
En subsanación	20/11/2023		
En Tramitación	20/11/2023		

Configurar


Firmar Cancelar Volver






Aceptación del documento - Trabajo: Microsoft Edge

https://eidas.izenpe.com/trustedx-resources/esignsp/v2/ui?csrf\_token=f3f68259...



Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava solicita que firme el siguiente documento:

Solicitud\_Expediente.xml 

He leído el documento


[Continuar](#)

[Cancelar](#)

[www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus)

Sinatzeko prozedura bukatu ondoren, mezu hau agertuko da. Hurrengo mezura iritsi ezean, dokumentazioa ez da aurkeztu.

### Mis Expedientes

 **El expediente seleccionado se ha actualizado correctamente.**

[Descargar Acuse](#) [Volver](#) [Nueva búsqueda](#)



### **3.- AURRERAKINA ORDAINTZEKO ESKABIDEA**

#### **▪ Ordainketa aurreratua eskatu ahal izateko baldintzak**

Onartutako eragiketarako laguntza aldez aurretik ordaintzea eskatu ahalko da, baldin eta eragiketa horietan hasierako laguntza eskabidean aurkeztu den "Eragiketaren banakako fitxa" deritzonaren 1.2 atalean hala adierazi bada.

Aurrerakina ordaintzeko eskabidea hasierako eskabidean adierazitako finantza ekitaldian egin beharko da, gidaliburu honetako 1. atalean deskribatutako epearen barruan.

#### **▪ Aurrerakinaren ordainketa eskatzeko prozedura**

Eragiketa bakoitzeko laguntzaren ordainketa aurreratua eskatzeko, inprimaki bat aurkeztu beharko da, behar bezala beterik, "Eragiketak hasteko jakinarazpena eta mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko laguntzen ordainketa aurreratuaren eskabidea" izenekoa.

Ordainketa aurreratua eskatuko den eragiketa bakoitzeko eskabide bat aurkeztu beharko da.

Hiru inprimaki eredu daude, laguntza aldez aurretik ordaintzeko eskatu nahi den eragiketamota zein den: "Birlandatzea, gidatze sistema erabiliz edo erabili gabe", "Barietateak birmoldatzea" eta "Kudeaketa teknikak hobetzea, gidatze sistema aldatzeagatik".

Eskabidea egiteko inprimakiak norberak betetzeko moduko .pdf formatuan eskaintzen dira, eta era elektronikoan bete eta sina daitezke. Bestela, inprimakiak inprimatu, eskuz bete eta sina daitezke, eta gero eskaneatu, era telematikoa aurkezteko, gidaliburu honetako 2. atalean deskribatutako prozedurari jarraituz.

#### **▪ Banku abala**

Aurrerakina ordaintzeko eskaera aurkeztu ondoren, jakinarazpen elektronikoa bat igorri, Aldundiak jakinaraziko du onuradunak zenbatekoa banku-abala eratu eta aurkeztu beharko duen erakunde ordaintzailearen alde.

Abalaren zenbatekoa kalkulatzeko, laguntza eskabidean adierazi den aurrerakinaren ehunekoa aplikatuko zaio onartutako eraginketek eragindako kostuei dagokien gehieneko laguntzari.

#### **▪ Aurrerakinaren ordainketa**

Banku abala eman izanaren ziurtagiria aurkeztu eta gero, bertatik bertarako kontrola egingo da, eragiketan kontuan hartu diren ekintzak aurrerakina ordaintzeko eskabidean adierazi den gauzatze egoeran badaudela egiaztatzeko.



Administrazio kontrolak eta tokian tokiko kontrolak egindakoan, eskatutako aurrerakina ordainduko da.

▪ Laguntzaren saldoa ordaintzea eta abala askatzea

Eragiketa amaitutakoan, laguntzaren gainerako zenbatekoa ordaintzeko eta banku abala askatzeko eskatu beharko da, 4. atalean deskribatzen den prozedurari jarraituz.



#### **4.- AMAIERAKO ORDAINKETA EGITEKO EDO AURRERAKINAREN SALDOA ORDAINTZEKO ESKABIDEA**

Eragiketa bakoitzaren gauzapena amaitu ondoren, laguntzaren azken ordainketa egiteko edo saldoa ordaintzeko eskabidea aurkeztu beharko da.

Ordaintzeko eskabidea hasierako eskabidean adierazitako finantza ekitaldian egin beharko da, gidaliburu honetako 1. atalean esandako epearen barruan.

##### **▪ Amaierako ordainketa egiteko edo laguntzaren saldoa ordain dadila eskatzeko prozedura**

Eragiketa bati lotutako laguntzaren azken ordainketa edo saldoa ordaindu dadila eskatzeko, ondoko inprimakia bete eta aurkeztu beharko da: "Eragiketen amaieraren jakinarazpena eta azken ordainketa egiteko edo mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko laguntzen saldoa ordaintzeko eskabidea".

Laguntzaren amaierako ordainketa egiteko edo saldoa ordaintzeko den eragiketa bakoitzeko, inprimaki bat aurkeztu beharko da.

Hiru inprimaki eredu daude, amaierako ordainketa egiteko edo saldoa ordaintzeko eskatu nahi den eragiketa mota zein den: "Birlandatzea, gidatze sistema erabiliz edo erabili gabe", "Barietateak birmoldatzea" eta "Kudeaketa teknikak hobetzea, gidatze sistema aldatzeagatik".

Inprimakiak norberak betetzeko moduko .pdf formatuan eskaintzen dira, eta era elektronikoan bete eta sina daitezke. Bestela, inprimakiak inprimatu, eskuz bete eta sina daitezke, eta gero eskaneatu, era telematikoan aurkezteko, gidaliburu honetako 2. atalean deskribatutako prozedurari jarraituz.

##### **▪ Aurkeztu beharreko agiriak**

Aurreko atalean deskribatutako ordainketa eskabidearen inprimakiaz gain, ekintzak edo lanak gauzatu direla egiaztatzen duten agiri guztiak digitalizatu eta aurkeztu beharko dira (fakturak, ordainagiriak, lanetan parte hartu duten ustategietarako kontratatutako pertsonen nominak, lurzoruen analisia eta beste).

Aurkeztutako fakturek argi eta garbi zehaztu beharko dituzte kontzeptua eta fakturatutako unitateak, eta, ahal dela, faktura bakarra aurkeztuko da ekintza bakoitzeko.

Fakturaren kontzeptua onartutako ekintzei zuzenean egotzi ezin bazaie, onuradunak ordaintzeko eskabidearen I. eranskinean zehaztu beharko ditu unitateak eta horietako bakoitza gauzatzeko zenbatekoa.



Aurkezten diren faktura eta ordainagiri guztiek laguntzaren onuradunaren izenean egon beharko dute, eta ez da inolako laguntzarik ordainduko ustiategi onuradunak bere gain hartu ez dituen ekintzengatik.

Ustiategi onuradunean inskribatuta ez dauden pertsonen egindako lanak diruz lagundu daitezkeen gauzazko ekarpentzat (norberaren eskulana) hartuko dira soil-soilik nominak edo bestelako egiaztagiriak aurkezten direnean, baldin eta pertsona horiek ustiategi onuradunak kontratatuta badaude lan horiek egiten diren egunean.

Ez da diruz lagunduko alokatutako makinak erabiliz edo laguntzaren onuraduna ez den beste ustiategi batek utzitako makinak erabiliz gauzatutako ekintzarik.

#### ▪ Laguntza ordaintzea

Laguntza kudeatzen duen organoak informazioa zuzentzeko edo dokumentazio osagarria aurkezteko eskatzen badu, era elektronikoan jakinaraziko da hura aurkezteko epea, eta epe hori amaitzen bada, espedientea izapidetuko da, zuzenketa ez egiteak dakartzan ondorioak aintzat hartuta.

Administrazio kontrolak eta tokian tokikoak egin ondoren ordainduko da laguntza, ordainketa bakarrean, eta, hala badagokio, diru-sarreraren galeragatiko konpentsazio ekonomikoaren zenbateko osoa jasoko du.



## 5.- ORDAINTZEKO ESKABIDEA BETETZEKO ADIBIDEA

Ordainketa eskatzen den eragiketa bakoitzeko eskabide bat aurkeztu beharko da.

### ▪ Eskabide eredua

Hiru inprimaki eredu daude, amaierako ordainketa egiteko edo saldoa ordaintzeko eskatu nahi den eragiketa mota zein den: "Birlandatzea, gidatze sistema erabiliz edo erabili gabe", "Barietateak birmoldatzea" eta "Kudeaketa teknikak hobetzea, gidatze sistema aldatzeagatik".

Inprimakiaren ereduaren azpian adierazita dago.

<b>COMUNICACIÓN DE FINALIZACIÓN DE OPERACIONES Y SOLICITUD DE PAGO FINAL O SALDO DE AYUDAS DE REESTRUCTURACIÓN Y RECONVERSIÓN DE VIÑEDOS</b>
<b>REPLANTACIÓN CON O SIN SISTEMA DE CONDUCCIÓN</b>

### ▪ Eskabidea egiteko inprimakiaren atalak

#### 1.- ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA

Laguntzaren onuradun fisiko edo juridikoaren datuak.

#### 2.- ORDAINTZEKO ESKATZEN DEN ERAGIKETAREN IDENTIFIKAZIOA

- Eragiketaren izena: hasierako eskabidean eragiketari emandako izen bera adierazi behar da.
- Ordaintzeko eskatu den azalera: ordaintzeko eskatu den onartutako edo aldatutako eragiketari lotutako azalera.
- Hasierako eskabidearen deialdia: hasierako eskabidea onartu zen deialdiaren urtea.
- Eskatutako ordainketa: aukeretako bat adierazi behar da. Ordainketa aurreraturik jaso baduzu, "Aurrerakinaren saldoa ordaintzea eta abala askatzea" hautatu behar duzu.



### **3.- ORDAINTZEKO ESKATZEN DEN ERAGIKETAREN EKINTZA GAUZATUAK**

Taulan, ordaintzeko eskatzen diren onartutako ekintzak gauzatzeko helburuz erabili diren baliabideak adierazi beharko dira.

Onartutako edo aldatutako laguntza eskabidean jaso diren ekintzak gauzatzeko erabili diren baliabideak baino ez dira adierazi behar, eta ez da laguntzarik ordainduko hasierako eskabidean eskatu eta onartu ez diren ekintzak gauzatzeagatik, ekintza horiek gauzatu diren eta horiek gauzatzeagatik kostuak aurkeztu diren alde batera utzita.

Ekintzaren bat kanpoko baliabideak eta baliabide propioak erabiliz gauzatu bada eta bi-biak ekintza horretarako onartuta badaude, bi aukerak adierazi ahalko dira (adibidez: gidatzeko sistemaren materiala erosi bada, baina ustiategiko langileek jarri badute).

Onartutako edo aldatutako eskabidean jasotako ekintzetako bat gauzatu ez bada, ez da adierazi beharko, baina horrek ez du esan nahi bidezko zehapenik aplikatuko ez denik.

#### **1. adibidea:**

Eragiketa batean, honako ekintza hauek onartu ziren, eta baliabide hauek erabiliz gauzatu ziren:

- ERAUZKETA: atzerako hondeamakina erabiliz egin zen, baina ustiategiko langileek jaso eta kendu zituzten mahatsondoak.
- EGOKITZAPENA: erauzketaren enpresa berak egin zuen, atzerako hondeamakina, dumper eta bulldozerrak erabiliz.
- SAKONEKO LABORANTZA: kontrataturiko lurpe goldea eta txisela erabiliz egin zen, ustiategiko makinak baliatuta
- AZALEKO LABORANTZA: ustiategiko langileek egin zuten, errotabatorea edo motoaitzurra erabiliz.
- LANDAREA ETA LANDAKETA: landarea mintegian erosi zen eta landaketa kanpoko enpresa batek egin zuen, baina azkenean, zenbait mahatsondo lanabesak erabiliz (herrón) landatu ziren.
- BABESKIAK: Azkenean, ez ziren jarri (jakinarazi ez bada eta alde zurretik onartu ez bada, zehapena ezarriko da)
- BESORA: materiala hornitzaile bati erosi zaio, baina ustiategiko langileek jarri dute.



Taula honela beteko litzateke:

GAUZATUTAKO EKINTZAK		EKINTZA GAUZATZEKO ERABILI DIREN BALIABIDEAK	
KODEA	EKINTZAREN DESKRIBAPENA	KANPOKO BALIABIDEAK (I. eranskina)	USTIATEGIKO ESKULANA ETA MAKINAK (II. eranskina)
AR	Mahatsondoak erauzte eta biltzea	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
NIVEL	Lursaila berdintzea	<input type="checkbox"/>	(Bakarrik kanpoko baliabideak erabiliz gero)
ACON	Lursaila egokitzea	<input checked="" type="checkbox"/>	(Bakarrik kanpoko baliabideak erabiliz gero)
LABP	Lurra prestatzeko sakoneko laborantza	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
LABS	Lurra prestatzeko azaleko laborantza	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
ABONO	Ongarri organikoa edo minerala eta hura aplikatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
DESINF	Lursaila desinfektatzea	<input type="checkbox"/>	(Bakarrik kanpoko baliabideak erabiliz gero)
DESPED	Harriak kentzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
PL	Landarea eta landaketa	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
PL-KL	Landarea eta landaketa, Key-line sistema erabiliz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
PL-CN	Landarea eta landaketa, sestrei jarraiki	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
PROTC	Babeskiak jartzea landare berriak babesteko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
PROTC-B	Landareak babesteko babeski biodegradagarriak instalatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
SIST-CON	Gidatzeko materiala eta sistema instalatzea	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
ABANC	Zapaldatzea	<input type="checkbox"/>	(Bakarrik kanpoko baliabideak erabiliz gero)
ABANC-MP	Zapaldatzea, harrizko hormak altxatuta	<input type="checkbox"/>	(Bakarrik kanpoko baliabideak erabiliz gero)





## I. ERANSKINA. KNAPOKO BALIABIDEAK ERABILIZ GAUZATUTAKO EKINTZAK JUSTIFIKATZEKO FAKTUREN ZERRENDA

Eranskin honetan, ordaintzeko eskabidearekin batera aurkeztu diren fakturak agertu behar dira, aurreko taulan ustiategitik kanpoko baliabideak erabiliz gauzatu zirela adierazi bada eta ekintzen kostuak justifikatzen dituztenak.

Lehenengo zutabean, fakturaren kostua erabili zen ekintzaren kodea adierazi behar da, 3. Atalean ageri den taulako ekintzen kode berak erabiliz.

Faktura berean fakturatutako kostu guztiak eragiketa bereko ekintza bakarra gauzatzeko sortu badira, ez da beharrezkoa eragiketa horretan agertzen diren kostu guztiak banakatzea (1. adibidea).

Faktura berean jasotako kontzeptuak hainbat ekintza gauzatzeko erabili badira, I. eranskinean zehaztu behar dira horietako bakoitzeko erabili ziren kostuak (2. adibidea).

### 1. adibidea:

Faktura honetan, ondoko kostuak jaso dira eta guztiak LURRA EGOKITZEKO ekintza gauzatzeko erabili ziren:

ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK	FAKTURA ZK. 23/752		
KONTZEPTUA	UNITATEAK	€/UNITATEA	ZENBATEKOA, BEZarik GABE
Atzerako hondeamakina (ordu kop.)	30	90	2.700
Buldozerra (ordu kop.)	15	50	750
Iraulki kamioia (ordu kop.)	5	50	250
ZENBATEKOA (BEZarik GABE)			3.700

I. eranskinean, kontzeptu guztiak multzokatu daitezke ilara bakarrean

EKINTZAREN KODEA (1)	HORNITZAILEA	FAKTURA ZK.	KONTZEPTUA	FAKTURATUTAKO UNITATEAK (2)	€/UNITATEA (2)	GUZTIZKO ZENBATEKOA, BEZarik GABE
ACON	ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK	23/752	-	-	-	3.700 €



## 2. adibidea:

Faktura berean hainbat kostu ageri dira, eta fakturan zehazten ez den arren, honako ekintza hauetan erabili ziren: ERAUZKETA, LURRA EGOKITZEA, LURRA PRESTATZEKO LABORANTZA SAKONA eta HARRIAK KENTZEA.

ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK		FAKTURA ZK. 23/754		
KONTZEPTUA	UNITATEAK	€/UNITATEA	ZENBATEKOA, BEZarik GABE	
Atzerako hondeamakina (ordu kop.)	70	90	6.300	
Bulldozerra (ordu kop.)	30	50	1.500	
Iraultki kamioia (ordu kop.)	8	50	400	
Lur iraultketa	10	80	800	
ZENBATEKOA (BEZarik GABE)			9.000	

I. eranskinean, ekintza bakoitzari zenateko kostua dagokion adierazi behar da:

EKINTZAREN KODEA (1)	HORNITZAILEA	FAKTURA ZK.	KONTZEPTUA	FAKTURATUTAKO UNITATEAK (2)	€/UNITATEA (2)	GUZTIZKO ZENBATEKOA, BEZarik GABE
AR	ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK	23/754	Atzerako hondeamakina	10	90	900 €
AR	ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK	23/754	Iraultki kamioia	2	50	100 €
ACON	ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK	23/754	Atzerako hondeamakina	50	90	4.500 €
ACON	ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK	23/754	Bulldozerra	30	50	1.500 €
ACON	ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK	23/754	Iraultki kamioia	4	50	200 €
LABP	ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK	23/754	Lur iraultketa	10	80	800 €
DESPED	ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK	23/754	Atzerako hondeamakina	10	90	900 €
DESPED	ARABAKO-ERRIOXA HONDEAKETA LANAK	23/754	Iraultki kamioia	2	50	100 €



## II. ERANSKINA BALIABIDE PROPIOAK ERABILIZ GAUZATUTAKO EKINTZETAN EMANDAKO ORDUEN ETA MAKINEN ORRIA

Honako eranskin hau BIRLANDATZEA ETA KUDEAKETA-TEKNIKAK HOBETZEA helburu duten eragiketak ordaintzeko eskabideetan baino ez dago.

Taula honetan, 3. ataleko taula ustiategiaren baliabide propioak erabiliz gauzatu zirela adierazitako ekintzen kostuak justifikatzen dituzten langileak eta makinak identifikatu behar dira eta erabilitako denbora adierazi behar da.

Ekintza batean, pertsona berak eskuzko lanak eta makinak erabiliz egindako lanak gauzatu baditu, ilara desberdinetan bereiziko da lan bakoitzari eskainitako denbora.

### 1. adibidea:

Katedun traktorea erabiliz egindako erauzketa lanetan, pertsona batek traktorea gidatu du eta beste batek orpoak katigatu ditu eta biek mahats orpoak bildu eta kendu dituzte.

Taulan, bereiz zehaztu beharko dira makinaren lan denbora eta eskuzko lan denbora.

II. ERANSKINA BALIABIDE PROPIOAK ERABILIZ GAUZATUTAKO EKINTZETAN EMANDAKO ORDUEN ETA MAKINEN ORRIA							
EKINTZAREN KODEA	DATA	LANGILEAREN IZEN-ABIZENAK	IFZ/AIZ	EGINDAKO LANAREN DESKRIBAPENA	ERABILITAKO EKIPOAK	MATRIKULA	ORDU KOPURUA
AR	2023-11-25	Jose M <sup>a</sup> Lopez Garcia	11111111A	Mahatsondoak erauztea	Traktorea + kateak	E7689BBT	5
AR	2023-11-25	Aitor López Marañón	00000000B	Mahatsondoak katigatzea			5
AR	2023-11-25	Jose M <sup>a</sup> Lopez Garcia	11111111A	Mahatsondoak bildu eta pilatzea			2
AR	2023-11-25	Aitor López Marañón	00000000B	Mahatsondoak bildu eta pilatzea			2
AR	2023-11-25	Jose M <sup>a</sup> Lopez Garcia	11111111A	Mahatsondoak garraiatu eta kentzea	Traktorea + atoaia	E7689BBT	0,5